



Etxauriko Udalak Sarbilen proiektu agroboltaiko bat garatu nahi duen promotorari ezarritako baldintzak argitaratu ditu

Nahiz eta Udalak eremu pribatu batean garatu nahi den energia-instalazioaren gaineko inongo eskumenik ez izan, horrek proiektuaren jabetzan parte hartze publikoa ziurtatzea lortu du.

Etxauriko Udalak, Sarbil Eguzki S.L. enpresa nafarrak Sarbil eremuko finka pribatu batean proiektu agroboltaiko bat garatzeko aurkeztu duen proposamenari jarri dizkion baldintzak ezagutarazteko herri batzarra deitu zuen urriaren 31an. Guztira, 62 Ha eta 4,4MW-ko 9 instalazio, aski 20.000 etxebizitzaren energia beharrak asetzeko. Nahiz eta eskumena Nafarroako Gobernuarena izan, Udalak bertakoa den promotorearekin hainbat baldintza finkatu duela adierazi zuen Idoia Aritzala Etxarren alkateak, beti ere, gizarte eta ingurumenarendako onuragarriagoa izan dadin.

Adostu diren baldintza horiek, Udalaren web gunean publiko egin den hitzarmenean jaso dira. Hitzarturiko neurriak ondokoak dira: lehena, eta 4/2022 Foru Legeak ahalbidetzen duenez, jabetzaren %51 gutxienez (%100 izateko aukera egonik) jabego publiko-komunitarioa izatea ahalbidetuko da; bigarrena, aldebiko kontratuak (epe luzerako energiaren prezio bereziak ezartzen dituztenak) inguruko pertsona fisiko eta juridikoei eskainiko zaizkie energia tokian eta inguruan kontsumitu dadin bermatuz; hirugarrena, etekinen zati bat proiektu sozialei bideratuko da Etxauri, Etxauribarren eta inguruko herrietan; laugarrena, ingurumen-eragina 2, 5, 10 eta 15 urteetan behin aztertzeaz gain, bioaniztasuna zaindu eta hobetzeko proiektuetarako baliabideak bideratuko dira; bosgarrena, proiektua garatuz gero, inguruan (Sarbil mendia) ez da bestelako proiektu berriztagarririk garatuko.

Udalak azpimarratu duenez, Sarbilen egin nahi den proiektu agroboltaikoari ezarri zaizkion baldintzek, “energia ekoizpen eta hornikuntza eredu aitzindari bat garatzea ahalbidetu dezakete”. Hori dela eta, Udalak promotore, eragile eta herritarrekin batera lanean jarraituko du proiektua aztertzen eta hobetzen, baldin eta, ingurugiroaren eta lurralde antolaketarekin ikuspegitik bateragarria bada; hori zehaztea, hala ere, Nafarroako Gobernuaren eskumena da.

Etxaurin, 2025eko azaroaren 12